

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Legazpiko Agenda 21eko Foroa 2011ko urriaren 6an egindako tailerraren akta



Udan atseden hartu ondoren, Legazpiko Agenda 21eko Foroan berriro heldu diogu lanari. Eta gogoz ekin diogu gainera, gai berriekin, betiko izpiritu eraikitzailearekin, eta taldea dena emateko prest etorri da! Egia esan behar badugu, pozten gaitu berriro elkar ikusteak!

### Zeintzuk?

Hona hurbildu zareten **26 legazpiarrek** forma eta edukia eman diozue gaurko tailerrari. Eskerrik asko zuetako bakoitzari, zuen parte hartzeagatik eta, batez ere, zuen jarrera eta Legazpiren alde emateko duzuen guztia emateko prest egoteagatik.

Igor Urrate (zinegotzia) • Arantxa Ibarreta (Iratzarri) • Begoña Santillán (Iratzarri) • Floren Gutiérrez • Eugenio Gil (Korosti zikloturistak) • Montse Vallejo • Pablo Romaratezabala • M<sup>a</sup> Angeles Prieto (Buztintegi) • Rafael Gómez (Buskabaso) • Isabel Vallejo (Olazabal institutua) • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Ana Manzanos (Olazabal institutua) • Arantza Lobo (Domingo Agirre) • Jose Luis Cid • Oscar Valbuena (zinegotzia) • Kepa Urzelai (alkatea) • Sagrario Etxabe (zinegotzia) • Javier Iraeta (zinegotzia) • Manuel Fernandez (Nagusilan) • Josune Macaya (UGGASA) • Iker Azurmendi (Goieki) • Isa Sanz • Aitor Madina (Aitor Madina) • Juan Carlos Agirre • Ane Mendiñueta (udal arkitektoa) • Inma Hernandez (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

### Landu ditugun gaiak

Deialdian jaso zenaren arabera, hiru izan dira gaur landu ditugun gaiak:

1. **Foroan euskarari emango zaion tratamendua:** Nola egingo dugu partaide guztiak gustura eta eroso senti daitezen?
2. Hainbat proposamen udalerriko plan orokorra aldatzeko.
3. **Autobus linea Legazpin:** Eman diren urratsen gaineko informazioa eta kontrastea.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Inma Hernandez teknikariak adierazi digunaren arabera, gai horiek ez dira Tokiko Agenda 21eko Foroaren tailerren egutegian aurreikusi genituenak. Baina lehentasuna duten gaiak direla uste dugu eta taldearen oniritziarekin horiek lantzea erabaki dugu.

Horrezaz gain, Inmak aurtengorako lehenetsita geneuzkan hainbat gai datorren urtean aztertu beharko ditugula adierazi du. Adibidez honako hauek: hondakinen kudeaketa, ohitura iraunkorrak sustatzea, natura-ondarearen gaineko azterketa,... Erronka horiek datorren urterako finkatuko ditugu, motorrak berotzen hasteko!

## Zehatz-mehatz partekatutako informazioa eta debatearen emaitzak

### 1. Foroan euskarari emango zaion tratamendua

Abiapuntu gisa, gai honen gainean eztabaidatzeko arrazoia partekatu dugu taldearekin: Bilduk osatu duen gobernu-taldeak, joan den ekainean egin zen Agenda 21eko Foroaren azkeneko bileran, *espazio honetan euskarak presentzia gehiago izatea eskatu zuen*.

- Eskaera horren aurrean, espazio honetan parte hartzen dugunok hizkuntzari buruz dugun ikuspegia, honako hau da:
  - Foroan daude: pertsona elebidunak (euskaraz nahiz gaztelaniaz hitz egiteko gai direnak); ez hitz egin arren, euskara ulertzen dutenak; euskaraz ulertu eta hitz egiten ez duten pertsonak.
- Eta gainera, topagune, eztabaidagune, proposamen-gune honek ondo funtzionatzen jarrai dezan (orain arte bezala), ezinbestekoa da:
  - elkar ulertzea; beste modu batera esanda, komunikatzea.
  - hizkuntzaren erabileraren ikuspegitik, norbera gustura eta eroso sentitzea. Hau da, hizkuntzaren gaia ez da baztergarria izan behar eta ez da inor deseroso sentitzeko arrazoia izan behar.

Hausnarketa horiek elkar partekatu ondoren, taldeari egin zaion galdera argia izan da.

**Taldearentzako galdera:** Zer egin dezakegu euskarak Foroan presentzia gehiago izan dezan baina elkarri komunikatzen jarraituz eta guztiok eroso sentituz? Zer tratamendu eman diezaiekegu tailer hauek osatzen ohi dituzten elementu desberdinei? Adibidez: Gai bat aurkezten denean, dokumentazioa banatzen denean, eztabaidatzen dugunean,....

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Taldean hausnartzeko tarte bat hartu ondoren, guztion artean erantzun diogu galderari.



Horretarako, kontuan izan ditugun hainbat aukera baztertu egin ditugu lehenbizi. Zehazki, honako aukera hauek **baztertu** ditugu:

- Foroaren saioak ez dira erabat gaztelaniaz edo erabat euskaraz izango.
- Ez da bat-bateko itzulpena eskainiko. Horretarako hainbat baldintza bete behar direlako: gela itxi bat izatea, interpretaria kontratatzea,... eta abar.

Eta hemendik, burua eta zentzu komuna erabiliz, forma eman diogu taldearen proposamenari:

**Foroaren proposamena espazio honetan euskarak presentzia handiagoa izan dezan, baina komunikazio naturala bermatuz eta guztiok eroso senti gaitzela lortuz.**

- *Foroaren saioen sarrerak eta hari nagusia euskaraz* egingo dira, gaztelaniazko laburpenak tartekatuz.
- Tailerlean informazioaren bat eman behar baldin bada, ahozko azalpena euskaraz egingo da eta gaztelaniaz prestatutako powerpointa eskainiko da. Euskara ulertzen ez dutenek saioa arazorik gabe jarraituko dutela bermatzeko, oso inportantea izango da gaztelaniazko euskarri hori (powerpointa) ongi prestatzea eta argia izatea.  
Eguneko aztergaietan aurreikusitako gaia oso teknikoa baldin bada, ahozko azalpena gaztelaniaz ere egitea komeniko den aztertuko da.
- Saioaren dinamikarako sor daitezkeen *lantaldeetan* talde bakoitzak erabakiko du zein hizkuntza erabiliko duen. *Bateratze-lanean eta/edo debatean*, hala ere, guztiok elkar ulertzea lehenetsiko dugu. Beraz, tarte horretan agian gaztelaniak presentzia handiagoa izan dezake.
- Banatuko den *dokumentazioa*, orain arte egin den moduan, elebiduna izango da.

Edozelan ere, tailer bakoitza bukatu ondoren, planteamendu berri honen funtzionamendu egokia aztertuko da zintzotasunez eta hori ezinbestekoa izango da aurrera egiteko (nola sentitu gara gaur?)

Asmo honekin ados jarrita eta emaitzen zain, aurrera egin dugu aurreikusitako gaiekin.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### 2. Hainbat proposamen udalerriko plan orokorra aldatzeko.


Ane Mendinueta arkitektoak azaldu digunaren arabera, hiru dira Legazpiko hiri-antolamendurako Plan orokorrean lantzen ari diren aldaketa nagusiak. Eta aldaketa horiek proposatzearen arrazoia hauxe da: joan den 2008an onartutako Planean jasotakoa gaur egungo egoera sozio-ekonomikora egokitu beharra.

Eta gai hau Foroan azaltzearen helburua, horren gaineko informazio ulergarria ematea da. Modu horretan, interesa duen pertsonak edo taldeak proposamenak, alegazioak,... aurkeztu ahal izango ditu, horretarako laster irekiko den epean.

Zehatz-mehatz, hauek dira proposatutako hiru aldaketak:

- **Ur-depositu berri bakarra eraikitzea eta ez 2 lehen aurreikusita zegoen moduan**

Batetik, egungo krisi ekonomikoak zaildu egingo luke inbertsio biei aurre egitea. Eta bestetik, ur-eskaria ere murriztu egin da. Bi arrazoi horiei Gipuzkoako Urak esan duena gehitu behar diegu, hau da, egungo eskarirako nahiko dela ur-depositu bakarra. Beraz, *hauxe da Udalaren proposamena: indarrean dagoen Plana aldatzea eta 2.000 metro kubikoko edukiera izango duen ur-depositu bakarra eraiki dadila onartzea.*



**Taldearen ekarpena:** Floren Gutierrez jaunak deposituaren altuera Beoki aldera 200-300 metro inguru "altxatzea" proposatu du; modu horretan, deposituko ura Urtatzako baserriak edo haranaren alde horretan etorkizunean egin daitezkeen eraikinak hornitzeko erabili ahal izango da.

Proposamen horri erantzunez, Kepa alkateak eta Ane arkitektoak orain bestelako aukerak planteatzea oso korapilatsua dela esan dute. Bi dira arrazoi nagusiak:

- Batetik, depositu horretatik ura hartuko duten etxebizitzak eraikitze-lanak bukatze daudela (eta proiektuaren edozein aldaketak atzerapen garrantzitsua ekarriko luke);
- Eta bestetik, horrek lurzorua kudeatzeko arazoak sortuko lituzkeela. Depositua eraikiko den lurzorua hirigintza-eremu batean sartu den lurra da eta horrek esan nahi du lur horien jabeek hirigintza-aprobetxamendua jasoko dutela. Beraz, kokalekua aldatzeak prozesu konplexuak hasi beharra eskatzen du, hala nola lurra desjabetzea,....

- **Eraikiko diren etxebizitzak tamaina eta tipologia egokitzea**

Indarrean dagoen Planean etxebizitza handiak aurreikusi ziren eta, zenbait eremutan, dentsitate txikiko eraikuntzak (familia bakarrekoak) eraikitzea aurreikusi zen. Egungo egoera sozio-ekonomikoak, aldiz, proiektatutako etxebizitzak tamaina murriztea eta lurrari ahalik eta eraikuntza-probetxu handiena ateratzea aholkatzen du.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Horregatik, hauxe da Udalaren proposamena: *indarrean dagoen Plana aldatzea eta aurreikusitako etxebizitzaren tamaina murriztea; eta familia bakarreko etxebizitzak eraikitzea aurreikusita zegoen eremuetan etxebizitza-blokeak eraikitzea.*

**Taldearen galdera:** Zehazki, zer ekarriko du proiektatutako etxebizitzaren metro karratu erabilgarriak murrizteak?

Anek etxebizitzako azalera murrizteak Planaren eremu guztietan izango duela eragina erantzun du. Eta oro har, Planean etxebizitza berriak, batz bestea, 100-115 metro karratu inguru izango zituena aurreikusten bazen, ondoren aldaketa honekin azalera hori 90 metro karratura murriztuko da (75 m<sup>2</sup> erabilgarri).

**Taldearen galdera:** Familia bakarreko etxeak egin ordez etxebizitza-blokeak egingo direla esan da, zein eremutan egingo da hori?

Anek horretan lan egiten ari direla erantzun du. Azkeneko marrazkia, gutxi gorabehera, hemendik 2 hilabetera zehaztuko da.

- **Katalogoan ondareko elementu eta elementu arkitektoniko berriak sartzea**

Zehazki, babestu eta zaindu behar diren elementu hauek sartuko dira katalogoan: Aizelekun dauden 2 trikuharri eta Azpikoetxen dagoen paper-fabrikako errota.

Azkenik, aldaketa horiek izapidetzeko prozesuari dagokionez, Anek Udala hasierako onarpenerako dokumentua prestatzen ari dela esan du. Prest dagoenean, 2 hilabeteko epean gutxi gorabehera, jendeak parte hartzeko epea zabalduko da edozein pertsonak edo taldek nahi adina proposamen, alegazio,... aurkez ditzaten. Ondoren, eta parte hartzeko epean egindako ekarpenak aztertu ondoren, behin-behineko onarpenerako dokumentua egingo da. Dokumentu hori Eusko Jurlaritzara bidali behar da behin betiko onartu aurretik.

Aztergaien puntu honetara iritsita, alkateak mahai gainean jarri du gai horrekin oso lotuta dagoen beste hau: Planeamenduko Aholku Batzordea.

- **Ezinbestekoa da Planeamenduko Aholku Batzordea berritzea.**

Adierazi zaigunaren arabera, honakoak izango dira Batzorde horretako kideak:

- Alkatea eta, kasu honetan, hirigintzako zinegotzia.
- Ingurumeneko zinegotzia.
- Oraindik zehazteko dagoen zinegotzia (gainerako alderdi politikoaren izenean)
- Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugelaren izenean, ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duen erakundetik)
- Eta beste kide bat, udalerriko elkartearen izenean. Kide hori, orain arte, Nagusilan elkartearen Manuel Fernandez izan da eta gustura emango lioke txanda bere lanarekin jarraitu nahi duen edonori.

Datozen egunetan, kargu hori hartzera norbait animatuko denaren itzaropenarekin, Aholku Batzordean parte hartzea zer esan nahi duen zehaztu dugu:

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- Organo aholku-emailea da eta bere lana Hiri-antolamendurako Plan Orokorrearekin zerikusia duten gaietara buruz aholkuak ematea da.
- Planeamendua aldatzen denean bakarrik biltzen da; hau da, gutxi gorabehera, urtean bitan.
- Horrezaz gain, garrantzitsua da azaltzea Legazpiren kasuan hirigintzako gaiak aldeztuz Tokiko Agenda 21eko Foroan aztertzen direla.

Hurrengo tailerrean jakingo dugu ordezkoa dagoen edo ez!

### 3. Línea de autobús en Legazpi

Udaleko Agenda 21eko eta iraunkortasuneko zinegotzi Igor Urratek zerbitzu hori martxan jartzeko eman diren urratsak azaldu digu. Gogoan izan, gainera, proposamen hori Agenda 21eko Foroak egindakoa dela.

Zerbitzu hori errealitatea egiaztatzen eta Udalak hartutako konpromisotik sortu da:

- Legazpiko zahartze-tasa handituz doa; ondorioz, adineko pertsonen leku batetik bestera joateko (osasun-zentrora, tren-geltokira,...) motordun mugikortasun beharrak dituzte.
- Horrezaz gain, Legazpiko goialdeko auzoetatik hirigunera eta auzo desberdinetatik (Urtatza, Telleriarte,...) erdigunera joateko aukerak eskaini beharra dago.
- Eta behar horiei guztiei erantzuteko, garbi dago Legazpiko Udalaren apustua zein den: Legazpiko Mugikortasun Iraunkorreko Planak autoa baztertu eta herri barruko joan-etorriak oinez, bizikletaz edo garraio publikoa erabiliz egitea lehenesten du.

Zerbitzuaren ideia azaldu ondoren, Igorrek Udala lantzen ari den proposamenaren hainbat datu adierazi dizkigu:




- *Autobusaren ezaugarriak:* 8,5 metroko luzera izango duen ibilgailua izango da (mikrobus handi bat), 22 eserlekurekin, bi gurpil-aulki sartzeko aukerarekin eta zutik joateko lekuarekin.
- *Ordutegia:* Hasiera batean astelehenetik ostiralera ibiltzea da asmoa (larunbat goizekoa zehaztu egin beharko da), goizeko 8:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Ordutegia ondo zehaztu beharreko gauza da eta, horretarako bestelako zerbitzuen ordutegiak hartuko dira kontuan (trena, ikastetxeak,...)

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

- *Ibilbidea:* Aldaketa txikiak eman badaitezke ere, hasierako proposamena ondoko planoan jaso da.



Hau da ibilbidea: Plazaola –Aizkorri kalea– Patrizio Etxeberria kalea– Osasun-zentroa –Santikutz kalea– Urtatza auzoa– Laubide kalea– San Ignazio auzoa– San Jose auzoa – Olazabal institutua –San Ignazio auzoa– Juanastegi kalea– Itxaropen – Aizkorri kalea – Plazaola.

Autobusak, gutxi gorabehera, ordu erdi emango du ibilbide osoa egiten. Eta gainera, zenbait ordutan autobusa Telleriarteraino iristea aurreikusten da.

- *Finantziak:* Udalaren kontura joango da zerbitzuaren kostuaren zati bat. Txartelaren prezioak beste zati bat beteko du. Eusko Jaurlaritzan diru-laguntza eskatuko litzateke. Eta azkenik, ezinbestekoa izango da zerbitzua finantzatzeko zeharkako beste aukerak bilatzea (adibidez, plazako lurpeko aparkalekuaren bidez).

Dena den, behin-behineko datuak dira eta horiek zehatzago aztertuko ditugu hurrengo Agenda 21eko Foroaren tailerrean. Izan ere, Igorrek gogora ekarri digu zerbitzu hori beharrezkoa dela eta, gainera, denboran luze eskainiko den zerbitzua izan dadin errentagarria izan behar du.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Azken oharrak eta agurra

Inmak pasatu dizkigun 2 ohar emango ditugu:


- **Eskualdean laster kontsumo-taldeak sortuko dira.**

Eskualdean kontsumitzaileen taldeak sortu nahi dira. Talde horietan urte osoan produktuak saltzeko eta erosteko konpromisoa hartzen duten baserritarrak eta kontsumitzaileak egongo dira. Horretarako, bertako produktuak zuzenean kontsumituko dituztenen sarea sortu nahi da, bitartekorik gabe eta alde bien mesederako izango den sarea.

Ekimen honetan parte hartzeko interesa izan dezaketenak, *Urretxuko kultur etxean datorren urriaren 13an* egingo den bilerara joan daitezke. Modu berean, beste aukera bat izan daiteke gure Foro honetara etortzea, asmo hori zuzenean ezagut dezagun.

- **Gipuzkoako Foru Aldundiak trenen eta autobusen ordutegiak osatu duen mapa banatu da.**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Goierri eta Urola Garaiko garraio publikoaren (trena eta autobusa) ordutegiak biltzen dituen plano edo mapa osatu du eta Inmak bertaratu diren kideen artean banatu du. Horrezaz gain, Gipuzkoako garraio publikoari buruz informazio zehatza nahi duenak honako Web orrian sar daitekeela adierazi du: <http://mugipuzkoa.com/>



Bi ohar horiekin, eta biltzeko genuen denbora agortuta, bukatu egingo dugu! Eta agur esango dugu gaurko proba nota onarekin gaintitu izanaren sentipenarekin, hau da, euskarari emandako tratamendua positiboa izan delakoan. Eta, gainera, hurrengo azaroaren 10ean egingo dugun tailerrean Legazpiko autobusaren gaia aztertzeko gogoz beterik etorriko gara.

Ordura arte, **eskerrik asko eta onak izan!**